


AITA JOSE LUIS BEOBIDE OLIVARES

1.- Datu biografikoak

Aurtengo abuztuaren 16an, gauean, hil jakun ustekabean Aita Jose Luis Beobide Olivares karmeldar sermolari eta idazlea bihotzekoak jota. Une honetan santu izendatzeko bidean diren karmeldarren bizitzak gogotsu, buru eta bihotz, gertatzen ebilen. Nor genduan, baina, karmeldar hau?

Aita Jose Luis Beobide Olivares, Zeanuriko Orue auzoan jaio zan 1920ko azaroaren 7an. Silverio eta Fermina baserritarren semea dogu. Batxilergoa Zornotzako karmeldarren etxean egin eban. Hamasei urte zituala ikasketak eten behar izan zituan gerrak behartuta. 1937an itzuli zan Larreako nobiziadura eta bertan egin zituan urtebete geroago erlijio-boto txikiak 1938ko azaroaren 14an. Filosofiako ikasketak Gasteizen amaitu ostean, Korellan egin eban teologiako lehen urtea; gero, bizitzako hainbeste urtetan bizilekua izango eban Begoñako Karmelora etorri zan apaiz sagaratu izan aurreko azken ikasketa-urteak egitera. 1944ko ekainaren 19an, San Pedro egunean sagaratu eben apaiz Gasteizen.



Bizitza osoan Euskal Herriko karmeldarren etxeetan izan dogu. Abade egin barri Larreara, bertan buru-belarri sermolaritzan eta katekesi lanean jardun izan ebala. Berak izan eban 1947an Lisieux-eko Teresa Santaren heriotzaren 50. urtean Larrean egin zan bilera nagusiaren ardura. Ordurako ezaguna zan, izan bere, Bizkaiko hainbat herritan sermolari lanetan. Geroago Gipuzkoan zehar bere ibiliko zan Eibarren egin ziztuan urteetan.

Larrean jardun eban 1954an Begoñako Karmeloko nagusi (1954-1957) izendatua izan arte. Jarraian (1957-1960) Eibarko nagusi ageri jaku. Karmeldarren artean ohiturazkoa danez agintaritzako hiru urteak bete ostean barrero Begoñara (1960-1963). Bertan, sermoiak egiten jarraitzeaz gainera, gazteriaren

ardura izan eban. 1963an Larreako nagusi izendatu eban, bertan bizi izan zala 1966ra arte. Lan hori amaitzerakoan barriro Eibarrera bialdu eban, han izan genduala bizitzan azken egoitza izan dauan Karmelora etorri zan arte.

1970an etorri zan Begoñako Karmelora, santutegi horretako parrokian laguntzera. Hemen, garai haretan dinamika handia zeukan kristau ezkonduiek osotutako taldearen ardura hartu eban bere esku. 1979an Bilboko *Goiuriko Santa Maria* parrokiako ardura emon eutsoen. Parroki horretan jardun eban zortzi urte luzetan zehar pastoraltza lanean. Horren ostean, Santa Marina ospitaleko kapilau izateko eskaini eban bere burua, lan horretan jardun ebala hirurogeita hamasei urte beteta eliz karguetatik behin betiko erretiratu zan arte. Oraindik sasoiko gizona izanik Karmeloko komentuan izan dogu elizako lanetan laguntzen, joan zan abuztuaren 16an hil zan arte.

Aldizkari honetan goratzarrea egin gura deutsogu bi arlo ez-bardinetan, euskararen alde lan ugaria burutu izan daualako. Batetik, euskal sermolari bikaina izan genduan hainbat urtetan zehar, Kontzilioaren osteko aldaketa sakonen ondorioz bide barriak urratu beharra etorri zan arte. Bestetik, bizitzako asken urteetan euskaraz idazteari ekin eutson lau liburu egin eta beste bat bidean zituala. Hurrengo lerroetan arlo bi horreek jorratuko ditugu, banan-banan.

1.1. Sermolari.

Aita Jose Luis gaztetan hasi zan sermoi-apostoluzan lanean. Horretarako doe handiak zituala eta bialdu eban Ordenako arduradunak apaiz egin barri Larreara 1944an. Garai haretako karmeldarrak ikastetxerik eta parrokiarik ez ebenez, batez ere sermolaritzan eta katekesia lanetan jarduten eban.

Karmeldarron elizetan, elizkizun handiak ospatzen ziran, eta halakoetan sermolari onak behar izaten ziran, batez ere sasoi

haretan ez egoelako gaur eguneko moduan bozgorailurik. Hori zala eta, sermoi luzeak idatzi eta ondo ikasteaz gainera, ahots ona behar izaten zan. Ez zituan zirrikitu guztiak betetzen oratoria hutsak.

Aita Jose Luisek aparteko doeak zituan eta laster egin ziran ezagunak here sermoi sutsuak, lehenengo Bizkaiko parrokie-tan eta, geroago, Gipuzkoakoetan. Izan eban lan horretan karmeldar maisurik eta lagun-kiderik. Eginkizun hau ohiturazko zerbait zan karmeldarren artean. Jarduera hori zeregin bereziztat jotzen zan, eta aparteko eskubideak emoten jakozan sermolariari, lan hori ondo betetzeko gertaketa egokia egiteko. Antzinatik ditugu karmeldarren artean sermolari ospetsuak, danden artean maisu eta eredu Aita Frai Bartolome Santa Teresa idazle joria izan dogula. Aita Beobide lan horretan hasi eta jardun ebanean ere baziran hainbat sermolari ezagun Euskal Herriko karmeldarren etxeetan: Aita Jenaro Larruskain (Markinan), Aita Eulalio Arrizabalaga (Donostian), Aita Martin Uriarte eta Aita Domingo Agirre, "Aita Luki/Luzio" (Larrea). Eta horrela hainbat eta hainbat sermolari entzutetsu...

Sermolari honeek sua eta garra zabaltzen eben Euskal Herriko herrietako bazterretan. Ez eutsen muzin egiten herrian pil-pilean ebiltzan gaiei. Garai oso larriak ziran. Diktaduraren garairik garratzenak. Badakigu Aita Jose Luisek eta, salaketa gogorak jasan izan zituela Frankoren sasoian herrietako abadeek isilik gorde beharrekoak ageriko egitearren. Egoera larrian ageriko egin behar izaten zituen gure herriak jasaten zituan zapalkuntzak eta horrek ernegua sortzen eban herritar batzuen artean. Gehienak, ostera, pozez bitsetan, norbaitek esan beharreko batzuk esaten zituala eta.

Sarritan entzun izan deutsot Abel Muniategiri bera mutikoa zala Aita Jose Luisek herrian misioak emoterakoan jartzen eban berotasunak eta hitz joritasunak sortzen eutson zirraren barri. Gaur egun halako hizlari sutsuak falta ei jakuz!

Aita Jose Luisek jo eta ke, eten barik jardun eutson sermoi-gintzari. Baliteke bere eskuarteko eskuizkribuak aztertzen direnean, bere garaiko beste sermolari askoren kasuan moduan, euskaraz idatzitako sermoi eder ugari agertzea, egin ere, sermolaritza gehiena euskaraz egin eban eta.

Aparteko doeak zituelako deitzen eutsoen jaietan eta ospakizun-ekintzetan. Horrela, sarri ageri jaku karmeldar gazteen botuak egiteko elizkizuneko nahiz apaiz egin barrien lehen meza eguneko hitzaldiak nahiz herritako jagoleen jaiegunetakoak egiten edota herririk herri misioak emoten.

Beste hainbat eta hainbat sermolari trebe eta sutsoen ondoran Euskal Herrian zehar gure euskara landua erabiliz gure hizkuntzarenganako begiramena sortzen eta gure herriaren esku-bideen alde jokatzen jardun izan eban.

1.2 Idazle

Hainbatean Aita Lino Akesolori zor ei eutson arlo honetan jardutea. Misio-lanak amaitu eta Begoñako Karmelo etxera etorri zanean, elizan euskaraz nahiz gaztelaniaz egiten zituen hitzaldietan erakusten eban jarioa ikusiz Aita Linok ea zergatik ez eban sermoi-liburu bat egiten esan ei eutson Horrela emon eutson hasiera bere lehen liburuari. Gero, liburu horrek jasotako erantzun ona ikusiz bide horretatik jarraitu eban, azken urteotan oso-osorik erabili izan dituala pastoraltza-lanak emon izan deutsozan astialdiak euskaraz idazteko.

Jo eta ke, etenik gabe ekin deusola dinot, idatzi dituan moduko lau liburu ezin diralako gauetik goizera idatzi. Ez dira hain erraz idazten 180 homilia ezberdin, 480 orrialdeko hausnarketa liburua, eta 326 nahiz 280 orrialde dituen Aita Joan Bizente eta Aita Aureliano misiolarien bizitzak. Une honetan Aita Zakarias abadinotar misiolariaren bizitza gertatzen ebulan.

Hurrengo lerroetan beraren idazkera mota eta egindako liburuak aztertu nahi ditut, *Karmel* aldizkari hau hartzen dozue-

nok idazle honen nondik norakoak hurragotik ezagutzeko aukera izan dagizuen, egin-eginean ere beraren bi liburu *Karmel Lekukoak* deituriko sortan kaleratu direlako. Gutxienez honako goratzarre hau sor deutsogu.

2.-Ezaugarriak

Aita Jose Luis Beobiden lanak banan-banan aurkezten hasi aurretik, komenigarri izango dogu zer-nolako euskara erabiltzen dauan gogora ekartea. Euskara horren apartekotasunak aurkeztea. Beste askoren artean hurrengo lau puntuok nabarmenduko neukez:

2.1. *Bizkaiera erraza eta ulergarria.* Bizkaieraz idatzi ditu liburu guztiak. Idatzi bere oso euskara bizi eta ulergarrian, aparteko erraztasunez eta argitasunez agertzen dituela bere ideiak. Lexiko-arloan euskara aberatsa darabil. Gaur eguneko kontzeptu barriak agertzerakoan, barriz, euskara erraza erabiltzen ahalegintzen da. Joskeran eta hainbat esalditan Arratiako euskararen aparteko indarra agertzen deusku bere liburuetan. Halan da bere, kezka handi bat agertu izan dau beti, egin-eginean ere Bizkaiko euskara jator horren ondoan, ahalik eta euskararik zabalduena eta ulergarriena erabiltzeko gogoia. Hori dala eta Bizkaitik kanpo ere erraz ulertzeko euskara mota erabiltzen saiatzen da. Horrela sermoigintzan herririk herri ibiltetan nahiz liburuak irakurtean bereganatutako hainbat esakune eta berba agertuko jakuz, batez ere lehenengo bi liburuetan. Era horretan, bestalde, errepikapenen monotonia aldentzea lortzen dau.

2.2. *Euskara bizia eta erakargarria.* Apartekotasunez nabarmendu behar dogu euskarari emoten deutson bizitasuna. Ageri-agerian erakusten dau aurrez aurre dagozenekin alkarrizketan, hartu-emonetan jarduten dakian hizlari trebearen eskua. Sarri agertuko jakuz ahozko zuzeneko euskal aditzetan ohizkoak izaten diran lehenalditik orainaldirako jauziak edota aditza isiltzeak. Aita Jose Luisen euskara, barrutik, bits zuri-zuri,

bor-bor dariola indartsu eta garden ateratzen dan haitz arteko iturriko uraren antzekoa da. Garbia eta gozoa, bizi-bizia, irudimenez jantzia. Esaldi laburrak dira nagusi, eta ez deuto muzin egiten irakurlearekin bat-bateko alkarrizketan jartzeari. Idazteko erraztasun handia erakusten dau, batez ere sermoi-liburuan eta gogoeta-liburuan. Beste bi liburuetan estuagoak ditu bidearen ertzak, helburua misiolarien izaera eta lana agertzea eta guregana hurreratzea dalako.

2.3. *Euskara egokia eta zehatza.* Arlo ezberdinak jorratzen dituen hiru liburu mota izanik arlo bakoitzak eskatzen duen idazkerari dagozkion egokitasuna eta zehaztasuna nabarmenduko neukez. Ahozko euskararen bizitasuna ardatz nagusi dauala, hizkuntzaren eta gaiaren artean oso lotura estua egitea lortzen dau gaiak eskatutakoaren arabera euskara mota ezberdinak erabiliz. Horretan maisutasunez jokatu dauala uste dot. Beraren liburuak banan-banan aztertzerakoan ikusiko dogunez, lehen liburuan ahozko hizkeratik hur-hurreko euskara eskainiko deusku; bigarrenean, gogoetak badira ere, irakurlearengana hurreratu nahian edo, sarritan alkarrizketa-eran eskaintzen deuskuz asko irakurri eta hausnartu ostean mamituta gogoeta luzeen emaitzak. Beste bi liburuetan ere, garrantzitsuena misiolarien bizitza aurkeztea izan arren, itaunak eta gogoeta pertsonalak eginez, irakurlea aurrean aurkitzen dan entzule modura hartzen dau.

2.4. *Euskararen idazkera grafikoa.* Arlo honetan egokitzeak edo aldaketak izan dituala lehen liburutik azkenekora artean esan beharra dago. Horretan azken urteotako euskararen ibilbideak ere izan dau eragina. Egin-eginean ere, gerra ondoko bideetan alfabetatuen ildotik abiatuz gaur egungo idazkerara egokitzeko ahaleginak egin ditu. Horrela, lehen liburuan ez dau oso-osoan ortografia baturantzako biderik hartzen. Ordurarte bizkaieraz ohizkotzat jotzen zan bidetik ekin eutson. Esaterako ez eban “h” hizkirik erabili. Behar bada, gaia (homiliak) oso zehatza izanik liburuaren hartzaileak (abadeak, kate-

kistak etab.) lehengo idazkerara ohituagoak zirala uste ebalako. Honetan Bizkaiko domeka eta jaiegunetako eliz liburuetakobidetik egitea jo eban eredu egokitzat. Halan da bere, geroago ikusiko dozunez, nahiko ortografia modernoan idatzita dago liburua edozeinek erraz irakurtzeko eran. Bestalde, kontuan izan behar da, Euskaltzaindiak emondako arauak batez ere baturako izan dirala; bizkaieraz, jarraitzeko eredurik ugari badaukagu ere, oraindik guztiz zehaztu barik ditugu hainbat idazkera-arau. Egiatan ez dogu arau zorrotik izan orain arte, handi-handika gehienok bide berdintsutik ibili bagara bere. Azken liburu bietan (azkena inprimategian) eredugarri izan daitekeen bizkaiera eskaintzen dau, idazkera, kontraesanikgabe, ardura handiz zaindu dauala.

3.- Liburuak banan-banan

Aurreko azalpenak gogoan izanik jo daigun orain argitaratuak dituan liburuak banan-banan, labur-labur bada ere, aztertzeraz. Argitalpen datari jarraituz egingo dogu:

3.1. *Igande eta Jaietako Homiliak. Jainkoaren billa.* Bilbao (1993) 394 or.. Liburuaren izenburuak adierazoten dauan legez, igande eta jaiegunetako mezetarako eginiko berbaldi laburrak dira. Ardatz nagusitzat eguneko ebanjelioa hartuz eratutako datoz, eta gehienez orrialde biko luzera dabe. Berbaldi luzeak egiten ohitutako sermolariak muga estuak jarri eutsozan jardunari, bere burua astiro-astiro 7/8 minututan irakurtzeko edota esateko hitzaldiak egitera behartuz.

Liburu honetan agertzen dira Aita Jose Luis sermolariaren doerik ederrenak. Izugarrizko indarra emoten deutse berbei. Esaldi laburrak erabiltzen ditu. Laburrak, bai, baina, era berean trinkoak eta bizitasun handikoak. Esan dan legez, liburu honetan ageri da, batez ere, ahozko euskaratik jasotako aire freskoa. Oso euskara erraza eta ulergarria darabil. Hori dala-eta edo, zabaldu izan da liburu hau Euskal Herri osoan, Bizkaitik harago, Nafarroaraino nahiz Iparralderaino. Hona hemen adibide bat:

“Zoragarria da benetan kristau erlejiñoa. Maitasuna dau oiñarri ta ardatz. Maitasuna kultuaren biotz.

Eta maitasuna, ezagutzen dan gauzarik lilluragarriena da. Munduak daukan altxorrik ederrena.

Ebanjelio guztian zehar, itzetik ortzera, maitasuna dabil kantari.

Barne-barnean, ixil gabe, gozo-gozo, leun-leun, maitasunaren abotsa entzuten da, maitasunak dituan milla doiñutasun ederrez apaindurik: maiteko dozu, parkatuko dozu, lagunduko dozu, arinduko dozu..., onakoxe abotsa entzuten da an.

Begien bistan dago, Jaungoikoak mundu au, sendi andi baten antzera asmau ta egin dauala.

Sendi onetan, Jaungoikoa guztion Aita dogu; guztiok Aita orren seme-alabak gara. Beraz, aita beraren seme-alabak, eta alkarren artean neba-arrebak.

Eta Jaungoikoaren Erri barri onetan, Jaungoikoa ta lagunurkoa erabat maitatzea da Erreiñuko legerik andiena.

“Jaungoikoa, biotz-biotzez, gogo-gogoz, adimen osoz, mailatu egiezu, eta zeure lagun urkoa zeure burua lez”.

Maitasuna da, ba, sendi andi honen biotza eta bizi-arnasa.

Maitasuna, munduak be, agotik kendu barik darabil.

Ia abeste guztien kantu itza da; eresmintzetan, milloika aldiz, entzuten dana; irrati ta dantzatokietako erregiña.

Baiña, maitasun au ez da Jesusek irakatsitakoa. Au beste aska batetik datorren ura da. Aragiaren griñan sortzen dana. Ortik, maitekeriagaz antz andiagoa dauko.

Maitasuna, Jesusen begietan, beste gauza bat da.

Beste biotz batera joateko, gure biotzetik urteten dauan sentimentu bat.

Besteen billa doa, besteakaz egoteko; besteak otseintzeko, besteai on egiteko... Jesusen antzera, bizitza on egiñez emoteko!...” (119-120. or.)

kistak etab.) lehengo idazkerara ohituagoak zirala uste ebalako. Honetan Bizkaiko domeka eta jaiegunetako eliz liburuetako bidetik egitea jo eban eredu egokitzat. Halan da bere, geroago ikusiko dozunez, nahiko ortografia modernoan idatzita dago liburua edozeinek erraz irakurtzeko eran. Bestalde, kontuan izan behar da, Euskaltzaindiak emondako arauak batez ere baturako izan dirala; bizkaieraz, jarraitzeko eredurik ugari badaukagu ere, oraindik guztiz zehaztu barik ditugu hainbat idazkera-arau. Egiatan ez dogu arau zorrotik izan orain arte, handi-handika gehienok bide berdintsutik ibili bagara bere. Azken liburu bietan (azkena inprimategian) eredugarri izan daitekeen bizkaiera eskaintzen dau, idazkera, kontraesanik gabe, ardua handiz zaindu dauala.

3.- Liburuak banan-banan

Aurreko azalpenak gogoan izanik jo daigun orain argitaratuak dituan liburuak banan-banan, labur-labur bada ere, aztertzeraz. Argitalpen datari jarraituz egingo dogu:

3.1. ***Igande eta Jaietako Homiliak. Jainkoaren billa.*** Bilbao (1993) 394 or.. Liburuaren izenburuak adierazoten dauan legez, igande eta jaiegunetako mezetarako eginiko berbaldi laburrak dira. Ardatz nagusitzat eguneko ebanjelioa hartuz eratutako datoz, eta gehienez orrialde biko luzera dabe. Berbaldi luzeak egiten ohitutako sermolariak muga estuak jarri eutsozan jardunari, bere burua astiro-astiro 7/8 minututan irakurtzeko edota esateko hitzaldiak egitera behartuz.

Liburu honetan agertzen dira Aita Jose Luis sermolariaren dokerik ederrenak. Izugarrizko indarra emoten deutse berbei. Esaldi laburrak erabiltzen ditu. Laburrak, bai, baina, era berean trinkoak eta bizitasun handikoak. Esan dan legez, liburu honetan ageri da, batez ere, ahozko euskaratik jasotako aire freskoa. Oso euskara erraza eta ulergarria darabil. Hori dala-eta edo, zabaldu izan da liburu hau Euskal Herri osoan, Bizkaitik harago, Nafarroaraino nahiz Iparralderaino. Hona hemen adibide bat:

*luze eta bizkarduna goibehe eta barrunbeak urrundik eta sako-
nez susmatzeko.*

*Zalantzarik gabe, gure egunetako gizonik handienetariko
bat izan da. Elizgizon gitxik lortu abal izan dabe berak lortu
dauan ospe eta entzutea.*

*Goraldua askoren aldetik, behekatua gitxiren berbalik. Autor
daigun Jaungoikoak bere Elizari egindako doai miresgarria
izan dala.*

*Estatu Batuetan gongotzain den Rembert Weakland benedi-
tarrak, honako hitzak eskini eutsazan Aita Arruperi, hil barri
zala: "Hilda zagozan ezkerro, esan neike zutzaz dodan eritxia:
nik ezagutu ditudan pertsona guztien artetik, zcu izan zara san-
tutasunetik hurbilen ikusi zaitudana".*

*Gixo aldian, berbeta galtzeko egoala, bere bizitzaren irudi-
garri, totelka, oinazearen kurutzetik, bauxe entzun jakon:
"Oraingorako, Amen!, eta gerorako Aleluia!"*

*Aita Arruperen entzutea Hiroshima gainera atomozko leher-
kai hiltzailea jausi zan egun berean zabaldu zan lurbera osora.
Egun negargarri haretan emon eban bere gizatasunaren neurri
oso eta betea. Leherkaiaren hotsa baizen arin zabaldu zan
mundu guztira jesuita jator harek, suzko inpernu bizi haretan
izandako portamena eta eginiko lan harrigarri eta baliotsua.
Harrezkerro, Aita Arruperen izena eta Hiroshimarena beti bate-
ra joango dira. Dedu eta omenak bereak ditu, goratzarrerik
onenakaz..." (73. or.)*

3.3. Hiru karmeldar misiolari euskaldunen bizitzak.

Aita Jose Luisek aspaldi gogoan erabilan asmo bati ekin eu-
tson hainbat karmeldar lagunak eskatuta. Egin-eginean ere,
une honetan santu izendatuak izateko bidean diran hiru kar-
meldar misiolari euskaldunen bizitzak euskaraz idazteari.

Horrela, lehenengo, Euskal Herrian ezagunagoa dogun Joan
Bizente Zengotita-Bengoaren bizitza idatzi eta argitaratu eban
Karmel Lekukoak liburu bilduman, 1998an. Bigarren liburua,
une honetan inprimategian dagoan 280 orrialdekoa, Aita

Aureliano Landeta Azkueta Indiako misiolari beneragarriaren bizitza izango dogu. Hirugarrena, heriotza unean egiten ebile-na, Aita Zakarias Salterain abadinotar misiolari ospetsuarena.

Gogo biziz ikusi izan dogu azken urte honeetan Karmengo Ordenari eta Euskal Herriari hain ospe handia emon deutso-en hiru misiolari handien bizitzako datuak batu, aztertu, sailkatu eta euren bizitza eta espirituzko irakatsiak euskara gozo eta atseginean eskaintzeko lanetan. Kontaketa eta deskripzio ederrak aurkitzen ditugu bertan. Gertakari historikoak aurkezteko era erraz eta erakargarria darabil. Jarraian dagoeneko eginak ditugun bi bizitzen barri zehatzak eskaintzen deusuedaz:

3.3.1. Joan Bizente Zengotita-Bengoa. Apostolu eta misiolari handi baten bizitza eta lanak (1862-1943); Karmel lekukoak-3. Markina-Xemein, 1998, 322 orr. Idazkera errazean eta bizian idatzia dogu. Inolako nekerik gabe irakurtzen da. Hona hemen, bertatik hartutako atal pare bat:

“Berrizko herriburua, Bizkaian, Oiz mendiaren oinetan, troka luzanga baten sartuta dago. Durangotik harantz lau kilometora.

Troaka hau estua ta itxia dan lez, ez deus begia urrutira luzatzeko egokitasunik emoten.

Gaur herriko behealdea lantegiz bete da. Industrializazio zabala egin da bertan azken urteotan. Lantegi honeen deira jende arrotz asko etorri da bertan bizitzera. Berriz, gaur egun, herri hazitxoa da; aberats eta aurrratua. Izen handia lortu dau gizarte mailan.

Gaurko Berriz barri hau ez da Aita Joan Bizenteren egunetakoa. Aldiaren lege biziak sortzen dituan aldaketa geldiezinak egin dira hemen ere.

Erdialdetik zerbait gorantz igonez, edozein tokitatik begiratuaz, ikuspegi zoragarriak ditu Berriz aldeak. Begi aurrean ikusi zeinke, liluraturik, Anboto mendian hasi eta

Aramotzeraino doan mendidi ikusgarria: Anboto, Untzilaitz, Sabigan, Mugarra, Aramatzeko gailurrak, Urkiolako Santutegia bitarteko dala.

Alderdi ederrago askorik ez dozu aurkituko mundu zabalean zehar, batez ere, goizeko eguzki argi-epela bere gainera zabalitzen danean". (11. orr.)

"Gaurgeroz, mundu barri bat zabaldu da Aita Joan Bizente gaztearentzat. Bitziza barri bat. Komentuko bakartadea itzi, mundu zelaira salto egin eta jendartean beste Kristo bizi bat izango da. Bide luzea egin behar izan dau abadetzara heltzeko. Amaibako ikastorduan komentuko ixilean; ames asko muga horretara noiz helduko.

Gaur, muga hori atzean geratu da; mundu osoa, solo handi bat balitz lez, aurrean zabalik agiri jako, ebanjelioaren ereintza egiteko.

Eta ereintza hori kemenez, adorez, ausardiaz, sendotdasunez egingo dau. Dinoenez, askok Elias profetaren antza hartzen ei eutsoen; ikustekoa ei zan haren sermogintza. Guk esaten dogun lez, txatarrak ateratzen ei zituan haren berbaldi sutsuak.

Gaiztakeriaren aztarnak non eta han egoan Aita Joan Bizenteren mailu hotsa. Ez eban txarkeria bat buruan jo bagarik izten. Zuzenbakokeria, liberalismoa, biraoa, jai-hausteak, era guztiko ekandu zantarrak ziran, batez ere, berak gehien zigortzen zituanak.

Erasoaldi guztiak bere marka eroaten ei eben. Entzutetsu eta sona handikoak egin ziran alde guztietan haren hitzaldiak. Harrigarritasuna sortzen ei eben jendartean.

Burgos-en, Madrilen, Valentzian punterengo mailak lortu zituan sermoigintzan. Margarita Manturana agurgarriak bateatu eban ondoen gure Aita Joan Bizente: "Santu bat, igarle bat, Elias barri bat zala", esanez". (54. orr.)

"Aita Joan Bizente erabagiak hartzeko orduan dudazko gizona zan. Zalantzan gelditzen zan zein bide hartu ez ekiala.

Joera bi nabari dira argi-argi Joan Bizenteren bizitza eta nortasunean. Alde batetik, Jaungoiko zale oso-osokoa da. Komentu zarratuetako bizitza dau maite, eremuko ixila, han dauko josita bihotza. Jesusekin bakartadean bizi, solasaldi amaibakoak izan, otoitzaren barean arnasbarritu, bihotza Jesusen sugarretan goritu; Jesusekin mahai batetik edan maitasun ardoa.

Hauxe zan bere lehenego joera, bere grina. Baina, honen ondoan, bere eginen eta izakeraren arabera, gizon ekintzaileen artean egokiago letorkela deritxat. Apostolu erraldoia izateko jaiotako gizona". (171. orr.)

3.3.2. Aita Aureliano Landeta Azkueta (1887-1963)
Basauritar beneragarriarena, 280 orr; *Karmel lekukoak*-4. Markina-Xemein, 2000, 280 orr.(?) (inprimategian). Liburu honetan ere aurrekoaren ildo beretik jokutzen dau, euskara erraza eta atsegina erabiliz. Hona hemen liburu berri horren hasiera eta amaierako lerroaldeak::

"Goimailako misiolari karmeldar baten bizitza eta lanak azaldu nahi ditugu hurrengo orrialdeetan. Aita Aureliano Landeta Azkueta dogu misiolari handi hau; bizkaitarra, Basauriko semea, 1887ko ekainaren 27an jaioa.

Karmeldar hau, 25 urte zituala joan zan Indiara eta bertan hil, 1963an, berrogeita hamaika urtez misiolari izan eta gero.

Norbaitek honako hau itzi eban idatzita: Euskal Herriak izan diluan santu guztiak Euskal Herritik urrun egin zirala. Izatez egia da, baina idazleak hor agertzen dauan asmoa kaxkarra eta bape oinarri bakoa da. Euskal Herrian ez egoala giro egokirik santutasuna lortzeko esan nahi eban harek. Eta hori ez da egia orduko datuen arabera, behintzat.

Gure herriak, fede-bidean, herri asko itzi ditu atzean. Hor ez dago zalantzarik, ez eztabaidarik. Herri txikia izanik, beste edozein herrik beste santu ditugu lerroturik santuen izendegian".

“Aita Santu Joan Paulo II.ak izkribuz bandikiro hauxe adierazi eban egintza horretan: Agerikoa dala Aita Aureliano Landeta Azkueta, Karmeldar Ordenako abade misiolariak Jainkozko bertuteak Sinesmena, Itxaropena eta Maitasuna, baita gainetiko bertute nagusiak ere Zuhurtasuna, Zuzentasuna, Neurritasuna eta Azkartasuna goi mailako neurrian bizi izan zitu- tuala. Beraz, honen arabera, Aita Aureliano “Beneragarri” izen- datzea onartua izan dauala.

Barri honek ezinbestean poztu gaitu. Orain gatzena eginda dago; gauzak gaurkoz bide onetik doaz. Ia noiz ikusten dogun gure misiolari handia santuen izendegian goraturik. Zorionekoak ginake horrela balitz.

Bitartean Aita Aureliano, berak hainbeste maitaturiko Indiako zerupean, kutxa baten, egun hori noiz etorriko zain dago. Zeru goi-goitik zaindu gaizala berak”.

Izan dagiala, Aita Joan Bizente, Aita Aureliano eta Aita Zakarias misiolarien ondoan atsedena eta gure eskerrona Euskal Herriaren zerbitzuan, sermoigintzan, parrokia-lanetan, gaixoei laguntzen bizitza emon, eta gure ezaugarrikerik ederrena bultzatu nahirik lau liburu euskaraz idatzi deuskuzan Aita Jose Luis Beobide arratiarrak.

Patxi Uribarren Leturiaga

Oharra: Aita Jose Luis Beobideren liburuak eskuratu nahi ba- dituzue, eskaintza berezia egiten deusuegu hiru hilabeteko epearen barruan *Karmel* aldizari honetako harpidedun zarete- nei. Aita Juan Bizente eta Aita Aurelianoren bizitzak dohainik jaso ahal izango dituzue, eta beste biak (*Homiliak* eta *Eliza Zabarra bide barrietan*) %40ko beherapena eginez, **guztira 1.500 pezeta** ordainduz. Benetan aukera paregabea lau liburu eder eskuratzeko.